

Berrigara



Beart, artisten bilgune

Udalak 2.786 milioiko aurrekontua | Iñigo Olañeta txirrindulariarekin berriketan



RENAULT

**Renault Laguna berriak
toki harrigarrietara eraman zaitzake**



GILTZA BARIKO AUTOA AURKEZTEN DIZUGU



MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. BERGARA. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. ARRASATE. Tel.: 943 71 24 72



Bergarakua/kanpokua

Elena Laka / Abokatua

Zer pentsatu eman zoztan jun zan egunian Kolonbiako neska batek ia ni hamengua nintzan galdetu zoztanian. Nik baietz, bueno, hamengua-hamengua ezetz, Bergaran bizi baña gertuko herri batekua nintzala, Eibarkua. Ah, erantzun zoztan, ba nik brasildar itxuria edo hartzen dotsut. Brasildarra, pentsatu! Begitandu jatan orduan lokalista samar geratu nintzala, Kolonbiar batendako Eibarko bat "hamengua" dalako zalantza barik. Eta burura etorri jatan zenbat bider gogorazi dozten neri, brometan batzuetan, erdi serixo beste batzuetan, Bergarakua ez naizela, sarritan gañera Bergaran gertatzen diran gauzak ulertzen ez ditudala adierazteko. Hori guztiori hamendik hoge kilometrorra dagoen herri batekua izanda, dialekto bardiña berba einda! Zenbat aldiz galdetzen da konbersaziñuetan "hori ez da baña Bergaran gertatuko?" edo "hori Bergarakua da"? Eta erantzuna: ez Angiozarkua da, Osintxukua da, edo Plaentxikua da, nahiz eta hogetabost urte eruan Bergaran bizi izaten.

1997an ein zan eroldaren arabera, Bergaran bizi giñan 15.214 biztanleatik 9.483 ziran herrixan bertan jaixotakuak, ehuneko 62. Kanpokuak giñan horietatik, 3.394 ziran Gipuzkoatik kanpora sortutakuak. Pentsatzen dot kanpoko jendian proporziño hori pixkanaka-pixkanaka goruntz jungo dala, dakaguzen ume-kopuruari begiratzen badotsagu behintzat, eta gero eta gehi-

«Ondo iristen dotsat herri bakotxak bere izakeria eustiari, norberan sorterrixaz harro egotiari, baña aspaldi deskubridu zebe mundua norberaren kuadrilla, norberaren herrixa baño pixka bat zabalagua dala»

xao kanpoko jendia kanpo-kanpokua izango dala, hiri haundixetan ikusten hasi dan moduan: afrikarrak, hego-amerikarrak eta ekialdeko europarrak batez be. Eta horrek herrira etortzen hasten diranian, hasi dira honezkero, herrixan integratu biharko dabe, gure hizkuntza ikasi biharko dabe, baña guk be mentalidadia aldatzen hasi biharko dogu, zabaldu ein biharko dogu. Eta pertsona baten erreferentzia galdetzen dogunian ez dogu galdetuko ze famili-takua dan ("zu zeñena za?"), ze kuadrillakua dan. Saramagok esaten daben moduan, izena galdetu eta nahikua izango jaku, hori dalako galderarik inportantiena, hortik aurrerakua berak esango dau-eta.

Ondo dagoz (dare!) lokalismuak, ondo iristen dotsat herri bakotxak bere izakeria eustiari, norberan sorterrixaz harro egotiari, baña aspaldi deskubridu zebe mundua norberaren kuadrilla, norberaren herrixa baño pixka bat zabalagua dala, nahiz eta batzuetan danok gogora ekartzeko premiña daukagun.<

barruan



Eneritz Iburguren

Gizarte-langilea Venezuelan

«Nire lanean, sentimendu asko ezin dira maila pertsonalera ekarri»



Debora Outsen

'Espolon' ingeles akademiakoa

«Euskal Herriko kale estuek asko harritsu ninduen etorri nintzan lehenengo aldixan»



Iñigo Olañeta

CDR taldeko txirindularia

«Gorlako igoera ondo ezagutzen dut, baina domekako proba gogorra egingu zaigu»

6.

13.

17.

hi, gazte!



BEKAK

Borondatzeko Euskal Gazte Lankideen Programa 2001.

Eusko Jaurlaritzak, 20-30 urte bitarteko gazteak. Hizkuntzak. Epea: martxoak 24. **Mutis beken programa.** Kanpo Gaietarako Ministerioa. 40 urte baino gutxiagoko unibertsitate tituludunak. 40 beka, herrialde iberamerikarretan edo Portugalen graduatuondoko ikasketak egiteko. Epea: apirilak 30

JARDUERAK

Musikagida. Gaztemaniak! Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoan musikan dihardutenendako: musika taldeak, disko etxeak, diskoak eta maketak ekoizteto lantokiak...
www.gaztemaniak.net/musikagida

IKASTAROAK

Erizaintza. Osasun eta Kontsumo Ministerioa. Erizaintzan diplomadunak edo osasun laguntzaile teknikoak. Sei ikastaro: Madril, Asturias, Murtzia, Ceuta eta Guadalajaran. Epea: apirilak 6

SARIAK

Pintura. Trintxerpeko Txintxer Kulturala. 14 urtetik gorakoendako, gehienez bi obrarekin. V. Pasaiko Herria pintura lehiaketa. Epea: apirilak 9

LAN ESKAINTZAK

Hainbat plaza. Gasteizko Udala. Epea: matxoak 22
26 hezitzaile. Erdi mailako unibertsitate titulua izatea eta ondoko titulazioren bat egiaztatzea: Haur hezkuntzako maisu /maistra espezialista, OHko irakaslea, eskolaurrean espezialista; Haur hezkuntzako goi mailako teknikaria (LHko III. modulua) edo haurtzaindegietako teknikari espezialista (LH II).

27 Gizarte Laguntzaile. Gizarte Laguntzaile edo Gizarte Lanetako Diplomaduna.

29 Administrazio laguntzaile. Eskola Graduata.

46 Erizain laguntzaile. Erizain laguntzaile titulua.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zator Gazte Informazio Gunera.


INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregi panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Beltzuna Baita baltzuna eta baltzune ere: Ubeldura.

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Martxoak 8, eguna	16 °C	10 °C	2,4 l/m ²
Martxoak 9, egubakoitza	19 °C	9 °C	15,1 l/m ²
Martxoak 10, zapatua	16 °C	10 °C	5,5 l/m ²
Martxoak 11, domeka	20 °C	11 °C	3,1 l/m ²
Martxoak 12, astelehena	14 °C	10 °C	12,4 l/m ²
Martxoak 13, martitzena	16 °C	4 °C	- l/m ²
Martxoak 14, eguaztena	18 °C	5 °C	- l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegaraieta

Domekak: 11:00.

San Lorentzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.
Eguakitzak: 19:00.

Monja

Zaharrak

Domekak: 18:00.

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Jandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 16:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
ZAPATUA 17:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
DOMEKA 18:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
ASTELEHENA 19:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
MARTITZENA 20:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
EGUATZENA 21:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
EGUENA 22:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

OGIA

DOMEKA 18. Mizpildi

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIAK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun Etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko anonimoak 943 76 51 06
GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultur Etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notaritza 943 76 10 73

zorionak!



Maider Agirrezabal
22an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeok eta Gorka.



Ainhoa Larruskain
17an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxeok.



Markel Lopez
19an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxeok eta June.



Igor Okina
18an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeok.



Andoni Bretaña
16an 4 urte.
Urte askotarako eta
muhu handi bat!
Etxeok.



Aitziber Perez
22an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxeok.



Asier Franco
16an 11 urte.
Urte askotarako!
Lorea eta gurasok.



Ion Etxeberria
19an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxeok.



Mikel Elkoroberezibar
23an 3 urte. Urte
askotarako! Aitita,
amama eta izeba Eli.



Naiara De Dios
16an urtebete.
Urte askotarako!
Julen eta gurasok.



Olatz Olañeta
17an urtebete.
Urte askotarako!
Gurasok eta Aitor.



Maria Jose Urmeneta
16an 31 urte.
Urte askotarako!
Etxeok.



Iban Diez
16an 4 urte.
Urte askotarako!
Aitxita, amama
eta izebak.



Antxoni
19an urtebetetzea.
Urte askotarako eta
muhu handi bat!
Aitor eta Ainhoa.



Mikel Arregi
20an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxeok.



Jon Melchor
16an 6 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta
aitona-amonak.

oharrak

■ **1954**an jaiotako enafaria martxoaren 24an Azpeitxi jaietxean. Izena ematea (2.000 pta.ko depositoa) Azpeitxin eta Etxenagusian.

■ **1975**ean jaiotako enafaria martxoaren 24an Zabalan. Izena ematea (3.500 pezeta) Kutxan. Martxoaren 24an Pol-Polen elkartuko dira, 12:00etan.

■ **1951**ko Gipuzkoako kintoen anaiarteko eguna martxoaren 25ean, Pasai Donibanen. Goizeko 11:30ean meza izango da, eta ondoren bazkaria Txulotxon. Izena ematea hilaren 20ra arte Txulotxon: 943 52 39 52.

■ **1964**an jaiotako enafaria martxoaren 31n Tartufon. Izena ematea Plazako kioskoan edo 607 41 04 09 zenbakian.

■ **Txapa Irratiko telefono zenbaki berria** honako hau da: 943 76 46 46.

jardunen agenda



■ **Gaztetxoendako Olinpiadak:** Domekan, martxoak 18, 16:00etatik aurrera, 11 urtetik gorakoendako herri jolasak (sokatira, txingak, saku karrera eta kaxkara jokua), San Martin plazan.

■ **Bergara ezagutzen lehia-keta:** Gaur, martxoak 16, 1. Finalerdia: Hik Galdeu-Petu Petuan. Egubakoitzero 19:30etik aurrera Kartzela Zaharrean

■ **Kartzelako aisialdia:** Bihar Argiaren joku erraldoia egongo da. Taldeak osatu eta zatozte jolastera.

■ **Kultur Errota:** Martxoaren 18an, domeka, LAU BEHI taldearen kontzertua Pol-Polen arratsaldeko 8etatik aurrera.

Hurrengo alean, **martxoaren 23tik 29ra** bitarteko enafariak zorion agurrak argitaratuko ditugu.

Bergarrok epaitegian zer esanik badugulako...

**Epaitegian euskaraz!
Gure eskubidea da!**

Jardunen, AEKn, Pol-Polen edo Arranon eskatu orria eta sina ezazu.



- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak
- X 150 lagunendako jangela



PARKINA ETA TERRAZA
BASTER-ALDE
J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAETA
Tf.: 943 79 24 58

Eneritzek 22 urte ditu, eta Gizarte-Langile ikasketak amaitu ostean, Venezuelarantz abiatu zen, Eusko Gazte Kooperanteak programarekin. Uztailetik, umeak jasotzen dituen Caracasko Atenea fundazioan dihardu lanean.

Aitziber Azkondo

G. Hain gazte izanda, nolatan hain urrun?

E. Nire lana gustuko dut, eta betidanik izan dut go-go atzerrira joateko. Azterketak amaitu eta berehala, Euskal Gazte Kooperanteak programan izena eman nuen. Guztira, 5.000 lagunek aplikatu zitela esan zidaten, eta horietatik, 80 hartu behar zituztela. Ez nuen esperantza handirik, baina... Venezuelan aurretik egon barik nengoen, eta entzuten nituen iritziak ez ziren oso politak, baina beste pertsona batekin nindoala jakiteak segurtasuna eman zidan. Gainera, banekien, gaizki egonez gero, Bergarara bueltatzeko ez zela egongo inongo arazorik. Ikasketak amaitu nituenean, nire lanean burokrazia izugarria zegoela konturatu nintzen, eta hori ez nuen gustuko. Kaleko lana egin nahi nuen, eta horretarako, argi nuen atzerrira joan beharra nuela.

G. Dena dela, beka aspaldi amaitu zenuen.


E. Uztailean etorri nintzen, hiru hilabete igarotzeko asmoz; hala ere, etorri eta berehala, bi astera hain zuzen, beka beste hiru hilabetez luzatzea erabaki nuen. Hura berri bezain laster, fundazioan kontratua eskaini zidaten.

G. Nolako da hain gustuko duzun lana?

E. Hasieratik, erantzukizun handia eman ziguten fundazioan, nahiz eta gizarte-

ENERITZ IBARGUREN
Gizarte-langilea

*«Nire lanean,
sentimendu asko
ezin dira maila
pertsonalera ekarri»*



Eneritz, Caracasko Atenea fundazioan dabil lanean.

AITZIBER AZKONDO

te-laguntzaile gisa lan egin. Lau hilabete fundazioan bizi izan ginen umeekin batera. Guztira, 130 ume dira, kalean utzita, sexu-abusuak, bortxakeria, bazterkeria, arrisku pertsonala eta beste hainbat arrazoiengatik jasota daudenak. Gizarte-langile bakoitzak hainbat ume ditu bere ardurapean. Nik 30 ditut eta gizarte-lan-

*«Burokrazia
izugarria zegoela
konturatu nintzen,
eta nik kaleko
lana atsegin dut.
Horregatik argi
nuen atzerrira jo
beharra nuela»*

gile gisa dihardut. Ume horien kasuak ikertu eta bakoitzari jarraipena egin behar zaio. Familiak topatu, eurekin berba egin, umeak eskolaratu, dokumentatu, epaitegietan umeen eskubideen alde borrokatu, eta abar.

Kontu handiz ibili beharra dago. Familiak txirotasun egoeran daude, toki arriskutsuetan bizi dira, eta guk toki horietara joan behar izaten dugu. Askok ez dute inongo balioren zentzurik. Anai-arreben artean edo guraso eta seme-alaben artean umeak izaten dituzte, alkoholarekin edo drogekin arazoak, "bandetan" sartuta daude, e.a. Biztanleen %80 egoera larrian bizi dira. Dena dela, umeekin sortzen den harremana oso berezia da. Maitasuna eman eta jasotzeko izugarriko beharra dute, eta hori ematen saiatzen gara. Hala ere, kasuak ezin dira maila pertsonalera eramanez, sufrimendu handia ekar dezakete eta.

G. Zertan datza bilatze lana?

E. Umearen familia non bizi den bilatzea. Ikertze lana da. Askok tokiz eta etxez aldatzen dute maiz, eta ez dute umearekin inongo harremanik. Behin familia topatuz gero, horrek ematen duen poza ezin da inola ere azaldu. Familiarekin berba egin, nolabaiteko konfiantza eman eta harremana izaten saiatu behar da. Kasu horri jarraipena egin behar zaio. Umea fundaziora bisitatzerara joan, eta euren arteko harremana garrantzitsua dela jakinarazi behar zaio familiari.

G. Bergarara itzultzeko asmorik baduzu?

E. Momentuz, ez. Bada-kit etxean erantzun hori irakurtzeko ez dietela batere graziaz egingo, baina oso gustora nago.

Udalbatzak 2.754 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen eguaztenean

Udal aurrekontua EAJ-EA eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zuten

Iritzi kontrajarri nahikoekin onartu dute aurten aurrekontua. Arrazoia, Udalbiltzari zuzendutako 2,5 milioiko partida izan da. PSE-EEK aurrekontua onartzeko, aipatutako partida kentzeko baldintza jarri zuen. Osoko bilkuran bertan, EAJ-EAk kentzea erabaki zuen. Ondorioz, zinegotzi sozialistak onartu egin zuen aurrekontua. EH abstenitzekoa zen arren, Udalbiltzaren partida kentzean, ezezkoa eman zion aurrekontuari.

Iazkoarekin alderatuz, aurtengo udal aurrekontuak %2,1 egin du behera; 59 milioi hain zuzen ere. Bestalde, inbertsioetara bideratu-ko duten kopuruak ere behera egin du: %4,8 jaitsi da, beraz, 38,5 milioi gutxiago izango du Udalak inbertitzeko. Gainera, 17,2ko finantza zamari egin beharko dio aurre. Iaz, 2,8 puntu gu-

txitzea lortu bazuen ere, aurten, 3,1 puntu igo da 2000ko zamaren aldean. Gastuei dagokienez, gastu arruntek (pertsonal gastuak, erosketa arruntak, interesak eta transferentzia arruntak) hartzen dute zatirik handiena, 1.819 milioi.

EH-K EZEZKO BOTOA

EHk ezezkoa eman zuen. Boto esplikazioan, Jesus Mari Garitanok (EH) euren asmoa hasieran abstenitzea zela esan zuen, baina, Udalbiltzari azken orduan kendutako partidagatik (2 milioi eta erdi pezetakoa) ezezko botoa ematea erabaki zuten. Garitanoren hitzetan, «Udalbiltza da instituzio nazional bakarra, eta ez du zue ezer egiten horren alde. Oso tristea iruditzen zaigu aurrekontuak aurrera ateratzeko PSE-EEren botoaren bila joatea. Zuen asmoa gurekin adostatutako aurrekontuak izatea zen, baina zuen aurrekontuak dira, ez



Barne Sailari Arrizuri etxea erosi, eta liburutegia jarriko dute.

ARTXIBOA


gureak. Lehen gobernutik bota gintuzuen ETaren biolentzia gaitzesten ez genuelako, eta orain botoa *mendigatzera* zatozte». Victoriaño Gallastegi alkateak (EAJ) EHk aurrekontuak aurretik ezagutzen zituela erantzun zion, duela hilabate eta erdi hazienda batzordean aztertu zirelako alkatearen arabera. Era berean, ez direla botoa *mendigatzen* ibili gaineratu zuen.

2001erako UDAL AURREKONTUA

Udala:
2.754.155.222
Mizpirualde egoitza:
369.964.944
Udal euskalategia:
69.038.375
Bergarako bihargintza S.A.:
14.000.000
UDAL AURREKONTU OSOA:
3.046.527.319

AURREKONTUA BATZORDEKA (milioi pezetatan)

Auzoak	92.991
Ingurugiroa	154.605
Zerbitzu orokorrak	714.660
Informatika	33.625
Kultura	192.684
Kirolak	93.127
Hirigintza	387.018
Hezkuntza	76.444
Gizarte Ongizatea	284.011
Pertsonala	662.090
Euskara	62.900



INBERTSIO AIPAGARRIENAK (milioi pezetatan)

Kanposantuko eraikuntzak	55
2. sektoreko urbanizazioa	100
Urbanizazioa	50
Auzoetako ekipamendua	34
Lursailen erosketa	98
Arrizuria jauregiaren erosketa	64
Baserri bideak/Bide bazterrak	20
Argiteri publikoa	20
Ur sarea	25
Beste batzuk	259
GUZTIRA	725

Martzial Agirre kalea konponduko du udalak

Eguazteneko osoko bilkuran, Martzial Agirre kalea egokitzeko proiektu teknikoa eta baldintza plegua onartu zituzten EAJ-EA, EH eta PSE-EE alderdiek.

Lizitazio oinarria 5.104.000 pezetakoa da, eta lanei dagokienez, lurreko baldosak aldatuko dituzte labankorrek direlako. Lanok esleitzen zaizkion enpresak, 90 eguneko epean bukatu beharko ditu.

Martinez de Irala ikastetxe ostean dagoen gas gordailutik argindarraren zentralerainoko eremua egokitzeko proiektua eta baldintzak ere onartu zituzten.



Martzial Agirre kaleko zorua eta argiteria konponduko dute.

ARTXIBOA

BABESTUTAKO ETXEAK

Urteaga kalean eraikitzen ari diren babestutako etxetan izena emateko epea api-


rilaren 6an itxiko dutela eman dute jakitera udalean. Dagoeneko 229 eskari jaso dituzte.

Aitor Aranzabalek kargua utzi du

EHko zinegotziak

kargua utzi du. Aranzabalek 6 urte eman ditu zinegotzi: 1995-1999 legegintzaldian HBko zinegotzi gisa, eta 99ko udal hauteskundeetatik EHko zinegotzi moduan. Bestalde, legegintzaldi honetako Ingurumen batzordeko buru ere izan da, EAJ-EAK gobernu akordioa hautsi eta EH gobernutik kanpo geratu zen arte.

Balantzea egiteko orduan, bi aldetik bideratu du: pertsonaletik eta politikotik. Pertsonaletik oso esperientzia aberatsa, baina aldi berean desilusionantea izan dela aipatu du. Arlo politikoan, gobernu akordioa apurtzearen eragina nabarmendu du; lehen 15 lagunek egiten zuten lana, gaur egun 8k egitea ekarri duelako, eta horrek kudeaketa moteldu du. Ordezkoa ez dute aukeratu oraindik.



Aitor Aranzabal.

Haikako gazteen atxiloketak salatzekeo hainbat ekitaldi herrian

Haika taldeak deitutako borroka eta greba egunari atxikiz, 80 lagun inguruk manifestazioa egin zuten, joan zen egubakoitz eguerdian herriko kaleetan. 20:00etan, EH taldeak deitutako beste manifestazio bat egin zuten. Bi deialdien arrazoia, joan zen astean Baltasar Garzonen aginduz, Haikako hamasei gazteren atxiloketa salatzea.



Joan zen egubakoitzeko borroka egunean egindako manifestazioa

ARRANO

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Xabier Arregi "Txapi" kartzelaratu egin dute Garzon epailearen aginduz

Joan zen domeka gauean atxilotu zuen Polizia Nazionalak, Ibargarai kaleko aparkaleku batean, 22:30 aldera. Eguazten arratsaldera arte inkomunikatuta eduki zuten eta 17:30 aldera Madrigo Entzutegi Nazionalan deklaratu zuen. Garzon epaileak agindu zuen atxiloteta, eta Haikako kide izatea leporatu diote.

Martitzenean, oraindik ere Arregiren berririk ez zegoela, prentsaurrekoa eman zuten herriko hainbat taldek. Haika, LAB, Gazte-txea, EH, Gestorak, EHE, IA, Senideak eta, oro har prentsaurrekoan bildutako gazteriak, «leporatu diotena gezurra» dela esan zuten,



Herriko talde ugari egin du bat Txapirekin.

eta joan den astean «Garzonek Espainiako poliziaren bidez, Haikaren aurkako muntai polizi-judizial-mediatikoan» kokatu dute Xabier Arregiren atxiloteta.

"GARZONKERIA" BAT

Operazio osoa «Garzonkeria» bat dela gaineratu zuten, eta Espainiako Gobernuaren argumentu nagusia dela herri honetan subira-

notasunaren aldeko mugimendu eta sektore guztiak jipoitzea, eta era horretan burujabetza oztopatzea. Horrela bakarrik uler daiteke, euren esanetan, Txapi bezalako «militante fin» baten atxilotzea. Horren aurrean, «aski da» esateko unea heldu dela gaineratu zuten.

Bestalde, eguazteneko osoko bilkuran 'Txapi' ren askatasuna eskatzeko mozioa aurkeztu zuen EHk baina EAJ-EAk aurkeztutako mozio alternatiboa aztertu zen. Bertan, Garzonen jokabidea zalantzan jartzen du eta baita kale borroka gaitzetsi ere. EHkoek aretoa utzi zuten mozioa bozkatu aurretik.



Totorikaren heriotza gaitzesteko bilkura

Udaleko ordezkari eta hainbat herritarrez gain, ELAko Debagoieneko ordezkariak ere bildu ziren xingola beltza zuen pankartaren atzean egubakoitzean. Egun berean, manifestazioa egiteko zen ELA, LAB eta ESK sindikatuekin batera lan hitzarmenaren alde Donostian. LABekin izandako desadostasuna dela eta, ELAk ez joate pentsatu zuen. Azkenik, bilkura egitea erabaki zuten.

Gas-instalazioen berrikustekak

Gas Natural Butano SLk etxeetako berrikusteko kanpaina hasi du. Udalak gomendioak eman ditu: instalazioaren arduraduna etxeko jabea da, nahi den instalatzailearekin egin daitezke berrikustekak, aldez aurretik aurrekontua egitea eskatu eta ordaindu aurretik, faktura.

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57

Hitzaldia

Palestina: gatazkaren erroak eta egungo egoera

Hizlaria: Tamer Birawi palestinarra

KOMITE INTERNAZIONALISTAK

2001eko martxoaren 22an, osteguna, 19:30ean Bergarako kultura etxean



Berrigara

444 zenbakia.
2001eko martxoaren 16a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetzatza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate, Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Juan Martin Elexpuru, Arantza Oregi, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangotxi taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azalako argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



atrebentzia ezpada

Autobusa erabiltzen dozu? Zer pentsatzen jatzu Bergarako geltokiko bulegoa kentzia?



Ignacia Arregi

Ez dot askotan erabiltzen. Nik uste dot erosuagua dala txartelak-eta hartzeko bulego bat egotia.



Mireia Ortigosa

Noizian behin erabiltzen dot autobusa. Guztiz biharrezkua ez da bulegua, baiña arazoren bat sortuta be, hobe litzake egotia.



Bizente Unamuno

Gutxi erabiltzen dot. Bulegua biharrezkua dala uste dot; informaziñua emoteko, adibidez. Jarritta egoteko tokixa be biharrezkua da.



Ludi Del Prado

Astero juaten naiz Arrasatera autobusez. Autobusian hartzen dot txartela, eta niri, behintzat, ez dost eragozpenik sortzen.



Miren Goiti

Ez dot erabiltzen. Ez dot uste eragozpenik daukanik bulegua kentziak, baiña, ondo etortzen da galderaren bat egitteko-edo.



Aitor Inza

Ez daukat autobusa erabiltzeko ohiturarik; hala be, pentsatzen jat biharrezkua dala bulegua.

tira biraka peru azkarate



adituen esanetan

Naparrixa edo sukar aftosoa

Gaixotasun honen egundoko alarma sortu dute agintari eta komunikabideek. Badirudi zerbait berria dela, gaixotasun berri bat dela, baina edozein baserritarrek ezagutzen du, aspalditik gainera, naparrixa izenarekin.

Animalia askorengan eragiten du gaitzak: behiak, txerriak, ahuntzak, ardiak, bufaloak, basurdeak, oreinak, arratoiak, kirikinoak...

Sintomak oso agerikoak izaten dira; sintomak ikusita bakarrik antzematen da naparrixa daukala animalia bat.

Honako hauek izaten dira sintomarik ohikoena: sukar handia izaten dute, eta mukosa denetan (ahoa, sudurra, alua, atzapar bitarteak), aftak edo "pupak" ateratzen zaizkie. Pupa horiek likidoz beteta egoten dira; likido hori birusaz kutsatuta egoten da, beraz, oso kutsakorra izaten da. Afta edo pupa horiek lehertu egiten zaizkie eta ahoa, sudurra, behatz bitarteak eta alua zaurituta geratzen zaizkie. Ahoa, esaterako, izugarri hondatzen zaie, okela agerian geratzen zaie eta jan ere ezin izaten dute egin.

Behi helduen kasuan, 15-20 egunen buruan, besterik gabe, sendatu egiten dira. Bien bitartean, hala ere, tratamendu bat behar izaten dute, birusak mukosak apurtzen dituelako, eta beste edozein birus edo infekzio hor sartzeko arriskua izaten delako. Txahaletan era-



JULIO ETXEBERRIA

Albaitaria

«Naparrixak sukarra eragiten du, eta ahoan, sudurrean, baginan eta atzapar bitarteetan 'pupak' sortzen ditu»

gin handiagoa izaten du naparrixak. Hala ere, hilkortasun tasa ez da hain handia ere: txahaletan %20koa da; behi helduetan, berriz, %2koa. Txerriek sintoma eta gaixotasunaren garapen antzerakoa izaten dute. Ardien kasua, baina, ezberdina izaten da. Gaixotasunaren eragina antzerakoa da, baina sintomak ez dira argiak izaten, zailagoa izaten da naparrixa dutela antzematea.

Gizakiongan ez dauka inolako eraginik. Gertatu daitekeen bakarra zera da: gaixotasunaren eramaileak izan gaitezkeela. Beraz, ez dago kezkatzeko batere arrazoirik. Kontu honetan, baserritarrak dira kaltetuenak, duda barrik. Guk guztiok egin behar duguna bertako produktuak kontsumitzea da.



Animalia askorengan du eragina naparrixak.

kaleen izenak



1986ko otsailaren 20ko argazkia.

Fraiskozuri plaza eta Ibargarai hiribidea

Fraiskozuri plaza frontoia dagoena da. Ibargarai hiribidea Fraiskozuritik San Antonioraino heltzen da.

Jaso ditugun datuen arabera, 1937ko irailaren 15ean egindako bilkuraren aktan zera agertzen da: orduan, Paseo del ferial zenari izena aldatu zioten, eta Paseo de Navarra izendatu zuten. Gure ustez, gaur Bideberri pasealekua, eta Fraiskozuri plazari Paseo del ferial deitzen zitzaion; horrela agertzen da, behintzat, 1947ko planoetan. Eta Ibargarai hiribidea Nueva Gran Avenida izendatu zuten 1950ean.

Fraiskozuri plaza asko aldatu zen 1960ko hamarkadan; frontoiko sarrera eta gainean dagoen etxea 1963an eraiki zituzten. Errekaren gainean dauden etxeak ere garai hartan egin ziren. Hiru urte geroago, 1966an, plazako monolitoa inauguratu zen. Monolitoa Domingo Martinez de Irala bergararraren omenez jarri zuten. Orduan, plazari Domingo Martinez de Irala izena ipini zioten. Garai berean, Ibargarairi Gipuzkoako hiribidea izena eman zioten.

Azkenengo aldaketak 1980ko urriaren 30eko osoko bilkuran egin zituzten. Gaur egun ere berdin mantentzen dira. Plazak Fraiskozuri izena hartu zuen. Aldaketaren arrazoia bertako toponimo bat berreskuratzea zela zioten, erabakia hartzerakoan azaltzen zen legez. Badirudi Fraiskozuri izena toponimo moduan agertzen dela Bergarako Besarkadan; bertan, Espartero eta Marotoren tropen arteko besarkada egin zen. Gipuzkoa hiribideari Ibargarai izena jarri zioten, Bergara izenaren jatorria ei delako.

Testua: Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.

Argazkia: BUAK utzia (Juan Idigoras fondoak).

'Betimu' saioa Bergaran

Joan zen **egunean**, hilak 8, Bergaran izan ziren Euskal Telebistako 'Betimu' saiokoak. Arratsaldeko 17:30etan hasi, eta gaueko hamarrek aldera arte aritu ziren grabatzen. Herriko **ikastetxe guztietako 80 bat neska-mutikok** hartu zuen parte karaoke, dantza eta rap lehiaketetan. Datorren aste osoan, hilaren 19tik 23ra, emitituko dute Bergarako saioa. San Martin plaza bete-bete eginda zegoen. Azkenean, Aranzadi ikastolako gaztetxoek, 8 eta 9 urtekoek, lortu zuten puntu gehien; lehiaketako rankingeko lehen postuan jarri ziren, gainera. Aipatutako ikastolari musika ekipo bat eman zioten, eta irabazi zuten neska-mutikoei, berriz, hainbat opari: kamisetak, diskmanak, diskoak... Martitzenean hemen egon ziren berriro 'Betizu' programa-koak, irabazleekin **bideo-klip bat** grabatzera etorri ziren eta. Martxoaren 26an ikusi ahal izango dugu bideo-klip hori.



Basalgorako bidezidorra?

Eibar-Gasteiz autopista egiteko lanak direla eta, **Errota Erdi-koa** baserriaren parean Basalgorako zegoen bidezidorra kendu egin dute. Antzaenez, jende dezente erabiltzen zuen bide hori Basalgora joateko eta orain ltesa ondoan dagoen bideraino joan behar izaten dute, errepidetik Basalgora igotzeko.

Mundukiderekin landa turismoa ezagutzen

Mundukide fundazioak abian jarritako **Truke Programari** esker, **He-go Amerikako hamahiru lagun** Debagoienean daude joan zen astetik. Hemengo esperientzia kooperatiboa ezagutzera etorri dira, batik batik. Baina landa turismoko etxeak ezagutzeko aukera ere aprobeztatu nahi izan dute, eta joan zen astelehen arratsaldean Bergarako Lamaño-Etxeberrin izan ziren bisitan.



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ARREGI

Eraikuntza
materialak

Biltegia Tellerian, Labegariaietan.
Tf. 943 76 27 93

AGOITZ
tapiz denda

Leizariako San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias, Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Mireia Larrañaga **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 75. zenbakia. 2001eko otsailaren 16a.

Goienak gestionatuko du Kontuola

Idolaz euskara elkarteak hitzarmena sinatu zuen Goienarekin

Kontuola, Goienak kudeatuko duen beste herri aldizkarietako bat da. Horrela erabaki zuen Idolazek, eta joan den astean hitzarmena sinatu zuen kooperatiba horrekin herriko euskara elkarteak. Hemendik aurrera beraz, Goienak kudeatuko du Kontuola.

Idolaz euskara elkarteak, joan den asteko martitzenean, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibarekin elkarlanerako hitzarmena sinatu zuen. Miren Karmele Iparragirrek, Idolazeko lehendakariak, sinatu zuen. Hitzarmenaren arabera, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak gestionatuko du Kontuola aurrerantzean. Hortaz, Kontuola egingo duen kazetaria Goiena kooperatibako langilea izango da. Dena dela, oraindik ez da erabaki nor izango den herriko berriak jasoko dituen pertsona. Izan ere, Kontuolak itxura aldatuko du maiatzean bailarako beste herri aldizkari guztiek bezala. Goienak egiten duen Goienkariaren barruan joango da maiatzetik aurrera Kontuola eta horrek hainbat aldaketa eragingo dizkio hamabostekariari. Hasteko tamaina aldatuko du: Goienkariaren orrien tamaina hartuko du Kontuolak. Horrez gain, Elgeta eta Bergararekin edizio baten argitaratuko da. Hori dela eta, Bergaran eta Elgetan ere Antzuolako berri jasoko dute eta alderantziz, Antzuolan bi herri horien berri jasoko dugu.

UDALAREKIN HITZARMENA

Goienak Idolazekin sinatu duen hitzarmenez gain, Antzuolako Udalak ere sinatu du beste hitzarmen bat. Martxoaren 15ean izan zen Aramaion.

Hitzarmen horren arabera, Antzuolako Udalak Goienari 2.130.000 pezeta



Euskara elkarteetako ordezkariak sinadura egunean.

emango dizkio aurren Kontuola eta Goienkaria egiteko.

GOIENA

Idolazek eta bailarako beste euskara elkarteek osatzen dute Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba: Aramaioko Tirrittola, Arrasateko ARKO, Aretxabale-tako Loramendi, Bergarako Jardun, Elge-

tako Goibeko, Eskoriatzako Axtroki, Gaztagako Gurel eta Oñatiko Laixan.

Hitzarmena Bergarako kultur etxean sinatu zuten joan den asteko astelehenean eta hantxe elkartu ziren euskara elkarte horietako ordezkariak eta Goienako bi ordezkari nagusiak: Estepan Plazaola Goienako lehendakaria eta Mikel Irizar Goienako zuzendari orokorra.

■ ■ ■
Udalak 2.130.000 pezeta emango dizkio
Goienari Kontuola eta Goienkaria egiteko
■ ■ ■

Jose Luis Erostege, "Eltzikorta" euskal presoak

«Gure zeregin bakarria patio orduetan egiten dugun kirola da»


Jose Luis Erostege "Eltzikorta" 1997ko uztailean lehenean atxilotu zuten. Baramatzan beraz, hiru urte eta zortzi hilabete espetxean. Kartzelatu zutenetik, Alcalá-Mecoco gartzelan dago "Eltzikorta". Handik erantzun dizkigu galdera hauek:

Zer moduz zaude?

Gizakiok hiru gauza garrantzitsu daukagu: osasuna, askatasuna eta maitasuna. Osasun aldetik momentuz ondo nabil. Baina norbera jaiotako bitarteko ingurutik ateratzen bazaituzte, ikustera ohituta zeuden mendiak ezin badituzu ikusi, herrian egoteko aukerarik ez badaukazu, nahi denean nahi den tokira joateko askatasuna galtzen bada, senide eta lagunak neri elkartzasuna ekartzeko ehundaka kilometro egin behar dituztela jakitea, kartzela barruko bigabekeriak jasan eta ezintasuna sentitzen denean, aipatutako sentimendu hauek eguneroko ogia direnean, ezin dezaket ondo nagoenik esan. Baina senideen eta lagunak bisitatu eta herritarren elkartzasun adierazpenak maitatua sentiarazten naute, indarrez betetzen dute hemen barruan dagoena. Militantziak ematen duen harrotasuna ere baliagarri gertatzen da egoera honi aurre egiteko eta animoz eta gogoz nago aurrera jarraitzeko eta geurea defendatzeko.

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?

Espetxe hau hiru eremutan zatitua dago: kunplimendu eremua, prebentiboa eta isolamendua. Espetxeratu nindutenetik isolamenduko modulo batean nautate. Nahiz eta espetxe honetan kirold-



Jose Luis Erostege.

gia, tailerrak, eskola, etab. egon, isolamenduko eremuan gaudenok ez daukagu aukerarik parte hartzeko. Makina bat kexa eta errekurso bidali izan dizkiogu zaintzako epaileari, baina orain arte ez digute baimenik eman.

Gure zeregin bakarria patio orduetan (goizean bi ordu eta arratsaldean beste bi) egiten dugun kirola eta paseoak dira.

Patioa 25 pausu luze eta 10 bat zabal da. Ez dago ezertxo ere kirola egiteko, beraz korrika eta gimnasia egitera behartuta gaude. Patioko ordu murriztutan ere ez gaituzte bakean uzten, kamera batez gure eginkizun guztiak grabatzen dituzte, eta bi funtzionariok euren garitatik gure jarduerak jarraitzen dute.

Esan daiteke hemengo bizimodua ziegatik patiora eta patiotik ziegara dela, egunero berdin-berdina eta errutinaz be-

tetako. Errutina hau bakarrik apurtzen da lagunak eta etxekoekin bisita jasotzen dugunean (hilean bi aurrez aurreko eta bi astebukaeratan lagunak bisita) edo telefono deiak kenduz gero, beste guztia errutina da, egunero gauza berdina ordu berdinean: goizeko 8etan eguneko lehenengo zenbaketa (ateko zulo batetik begiratuta zenbatzen gaituzte) bigarren zenbaketa, eguerdiko 2:30ean eta hirugarrena 21:30ean.

Jatorduak, berriz, goizeko 8:30ean, bazkaria 13:30ean eta afaria 21:30ean. Jatordu guztiak gure ziegetan egiten ditugu. Eguneroko errutina bezalaxe eguneroko jana ere horrelakoa da: txarra, gaizki gertatutakoa eta koipe ugari.

Hitz gutxitan aipatu behar bada hemengo bizimodua, esan daiteke errutinaz betetakoa dela eta eskubide gutxiakoa.

Ezgunik badago zure inguruan?

Isolamenduko hiru moduloetan euskaldunok, astean zehar, ez dugu harremanik. Zapatu batzuetan, lagunak bisitaren ostean, kideekin egoteko momentu bat edukitzen dugu. Ni nagoen moduloan lau gaude: J.M Gaztelu bergararra, Gorka Garcia Sertutxa getxotarra eta Juanlu Camarero bilbotarra.

Zelako tratua jasotzen duzue? Orokorrean hobera edo txarrera egin du?

Tratua betikoa da. Funtzionarioengana jotzen dugu beharrezkoa dugunean bakarrik. Distantziak gordetzen ditugu.

Gure egoerak txarrera egin du. Lehen baimendutako gauza edo eskariak orain debekatu egiten dizkigute. Espetxeko zuzendaritzak gutako batzuk arra-

ANTZUOLA

Apaintekak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatua

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTI Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Abialdian, 1977 urtean (zutik, erdian).

zoirik gabe bakarka ipini zituen eta gu-
txienez binaka ipintzeko bi hilabeteko
txapeoa egin genuen. Gainera, espetxe
honetatik ere batzuk urrunduak izan dira
eta, bestalde, gureek espetxe batzuetan
jasaten dituzten jipoiak ere adierazga-
rriak dira kartzela barruko egoera neur-
tzeko. Garbi ikusten da kanpoko egoera
politikoak hemen ere eragina duela.

Zer iritzi daukazu Euskal Herriko egoeraz?

Giro iluna sumatzen da. Espainiako
alderdi garrantzitsuena euren morroien
laguntzaz eraso orokor bat egiten ari
zaio Euskal Herriari. Aipatzekoa da ko-
munikabideak jokatzeko ari diren papera
gatazkan.

Hogei urte pasatu dira Joxe Arregi
hiltzeraino torturatu zutenetik eta, gaur
egun ere, atxilotuek tortura jasaten du-
te, presook sakabanatuta jarraitzen du-
gu, gure senideak-lagunak sakabanake-
tarekin zigortzen dituzte. Euskara eraso-
tua dago, ideiak auziperatzen dituzte,
langabezia eta lanerako baldintza txar-
rak eguneroko ogia dira, eta betikoak
betikoen lanarekin etekinak poltsikora-
tzen, eta dena demokraziaren izenean...



Gaur egun preso dagoen Josu Uribetxeberriarekin 1996an.

Badaukazu zerbait esateko An- tzuloko herriari?

Bai. Espetxean nagoenetik hainbat
herritarrek lagundu eta era desberdine-
an elkartasuna adierazi didate: bisitak,
eskutitzak, postalak, dirulaguntza, gure
eskubideak defendatzeko borroketan
parte hartu...

Guztiei bihotz-bihotzez eskerrak

eman nahi dizkiet, urte hauetan hain-
beste babestu nautelako eta horrelako
egoera gogorra arintzen ahalegindu dire-
lako eta gure eskubideak defendatzen
ahalegindu direlako.

Herritarrak animatu nahi ditut Eus-
kal Herriaren eskubideak defendatzeko.
Guztiok apur bat eman dezagun beste
batzuk dena eman ez dezaten.

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

Ainhoa Ugarteburu: Korrikako bailarako koordinatzailea

«Domekan kuestazioa egin eta material mahai bat jarriko dugu»

Martxoaren 29an hasiko da Korrika eta apirilaren 2an Antzuolatik pasako da euskararen aldeko lasterketa. AEK-antolatzen du Korrika, eta Debagoieneko koordinatzaile lanetan antzuolar bat ari da: Ainhoa Ugarteburu.

Debarroko Korrika Darduraduna Ainhoa Ugarteburu da. Zer esan nahi du horrek?

Korrika 2 urtean behin egiten den ekintza da, Euskal Herri oso herrietatik pasatzen da. Aurten, duela bi urte moduan, gure eskualdeko ia herri guztietatik pasako da. Horrek koordinazio bat eskatzen du eta hori da nire lana.

Zer egin beharra daukazu?

Lana zabala da.

Duela bi hilabete edo, gure eskualdeko ibilbidea neurtu genuen, gero kilometroak kontatu eta kilometroak salmentan jartzeko. Hortik aparte, herrietan batzordeak sortu eta dinamizatu egiten dira, horrela "Korrika Kulturala" deritzona herrietara zabaltzeko. Herrietan hilabete honetan ekintza kulturalak antolatzen dira eta denon artean bideratzen ditugu.

Antzuolara noiz iritsiko da Korrika?



Ainhoa ari da Debagoieneko arduradun lanetan.

Gure eskualdean bi sarrera egingo ditu Korrikak, biak egun berean, apirilaren 2an. Antzuolara Bergaratik etorriko da, gaueko 9:30ak aldera, gutxi gora behera. Hortik Urretxu-Zumarragara joko du Korrikak eta gero Legazpira. Urola garaitik pasa eta gero Oñatitik Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagatik pasatuko da eta gero arabarrek hartuko dute testigoa.

Zer antolatu duzue bitartean?

Oraindik gauza batzuk lotu barik daude, baina bagoaz poliki-poliki herrian gauzak antolatzen. Adibidez, datorren apirilaren 1ean, domekan, Txan Magoa etorriko da. Domeka honetan kuestazioa egingo dugu eta baita material mahai bat jarri ere, edonork zerbait erosi nahi badu. Apirilaren 2an, bertatik pasatzen den egunean ere, izango dira ekintzaren batzuk.

Zenbat diru jasotzea espero duzue?

Euskal Herri osoan duela bi urte 80 milioi jaso ziren eta aurten beste horrenbeste jasotzea nahi da, Iparraldeko eta Nafarroako AEK bultzatzeko.

Txan Magoa

Korrika Kultureko ekintzen barruan, Txan Mago Handia etorriko da apirilaren lehenean, domekan, arratsaldeko 6:30ean zinetokira. Korrika astelehen horretan bertan etorriko dela eta, aurrekari moduan datorkigu Txan Magoa herrira.



EGUNKARIA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatua eta barnizaketa •

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industrian pinturak •
- Paper margotuak •
- Mokatak eta tapizatuak •

Debora amerikarra da, Estatu Batuetako Idaho Estatukua, hain zuzen be. Baiña azkenengo 23 urtietan Oñatin bizi da. Orain dala hamar urtetik dauka Bergarako Espolon ingeles akademia, Auriol bazkidiarekin batera.

Zelatan ipar amerikar bat hemen?

Ikasketengaittik etorri nintzan, gaztelera ikastera; nere senarra ezagutu eta bertan geratu nintzan.

Idahon euskaldun asko dago.

Ezagutzen ziñuan euskaldunen bat?

Ez; izan be, Idahon jaiotakua izan arren, kanpua bizi izan nintzan urte askuan, eta ez neban euskaldunik ezagutu.

Estatu Batuetako zer daukazu faltan?

Familixia.

Euskal Herrixak, berriz, badauka

Estatu Batuek ez dauken zeozer?

Bizitza soziala; kalian sekulako mugimendua egoten da, lagunak ia egunero elkartzen dira...

Ipar amerikar baten ikuspegitik, zelakuak gara euskaldunok?

Jende zintzua, atsegiña eta alaixa.

Hasieratik inpresio ona sortu zozten euskaldunek. Bestela, ez nintzan hemen geldituko.

Hemen, zerk harritu zintuan?

Kale estuek; izan be, han, Ameriketean, oso kale zabalak dauzkagu.

Orain ingeleseko irakaslia zara. Zer da gehixen gustatzen jatzuna zure lanian?

Jendiak zela ikasten daben ikustia, zela aurrera egitten daben.

Eta gutxien?

Neska-mutikuak disziplinatu bihar izatia ez jat bape gustatzen.

Debora Outsen

Bizitzeko toki bat?

Ni oso berozalia naiz, beraz, toki bero bat. Noizbait, igoal, biziko naiz horrelako toki baten!

Eta oporretarako?

Toki bero eta lasai bat. Buruan daukatena toki idiliko bat da, eta igoal ez da esistitzen.

Animalia bat?

Txakurra; neuk bi dauzkat.

Urtaro bat?

Uda.

Zela definituko ziñuke zeure burua?

Oso tolerantia naiz.

Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Txakurrekin pasiatzia, mendira juatia, irakurtzia, postriak egittia...

Liburu bat?

Isabel Allenderen bat.

Film bat?

Soap dish.

Aukeran, telebista, irratixa ala egunkarixa?

Irratixa.

Bukatzeko, amets bat?


Nere amama aldamenian edukitzia; ja nahiko edadetua da, eta gertuan edukitzia gustatuko jaten.



POL-POL

Taberna

943 76 07 78



Euskara ikasleak familia euskaldunetan hartzeko dirulaguntzak

Udan zuen etxean euskara landu edo hobetu nahi duten ikasleak hartzeko gertu egonez gero, hau duzue aukera.

Hileko dirulaguntza: 82.000 pta.

Izena emateko azkeneko eguna: martxoaren 22a.

Informazio gehiago:


Udaleko Euskara Zerbitzua.

Telefonoa: 943 77 91 66.

Oharra: programa honetan parte hartzeko herrian edo auzoan euskaldunen proportzioa %70ekoa edo altuagoa izan behar da; horregatik, Bergaran baserri-auzoetako familiek bakarrik har dezakete parte.



BERGARAKO
UDALA



Ur~bide

ITURGIN TZA

Zubieta, 28-behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

BEART

Artistendako elkarte eta lantoki

Pintatzeko toki aproposa dute Boluko egoitzan artista hauek. Bakoitzak badu bere txokoa, bere pintura eta lanerako tresna guztiekin.

Orain dela hilabete batzuk arte, ikastaro eta erakusketetarako bakarrik erabili dute lokala. Orain, berriz, iazko urritik hain zuzen ere, lau artista egoten dira hantxe lanean. Izan ere, hain lokal aproposa ahalik eta gehien aprobetxatu nahi zuten. Horregatik, kurtsio hasierarekin batera, planteamendu berria egin zuten eta lokal horretan lan egin nahi zuten edonori zuzendu zioten deialdia. Zortzi bat pertsonarendako tokia zegoen, baina lau besterik aurkeztu ez zirenez, horiendako izan ziren tokiok.

ARTISTAK ELKARTUTA

Hainbat artistaren ekimenez sortu zen Beart elkarte. Pello Alberdi pintoreak azaldu digunez, "Luis Laskurain, Abdon Juaristi, Bingen De Pedro, Riki Azkargorta eta neure artean atera genuen aurrera ekimen hau". Luis Laskurainek aspalditik zerabilen buruan herriko artistak bilduko zituen elkarte sortzeko ideia. Azkenean, duela sei bat urte, 1995ean, sortu zuten elkarte. Alberdiren esanetan, "elkartuta gauza gehiago antolatu eta lortu genezakeela uste genuen; hori izan zen animatu gintuena". Gainera, arteari, eta pinturari batez ere, bultzadaxoa ematea ere bazuten helburu. Baina, asko ei dago oraindik egiteko. Oraingoz, lokal bat behintzat badaukate. Duela bi urte inauguratu zuten, elkarte sortu eta hiruzpalau urtera, udalak egoitza kokatzeko lokal bat eman zienean. Pintoreak dira gehienak. Eskultoreen kasua nekezagoa izaten da: egurra, metala edo plastikoa lantzeko zarata handia ateratzen dute, eta zikinkeria izugarria sortu, eta lokala ez dago horretarako egokituta.

Beart du izena, eta dagoeneko baditu sei urte. Bergarako artistak batzen dituen elkarte da; duela pare bat urtetik, gainera, badute lokal bat ere, Bolun. Egoitza hori erakusketa eta ikastaroetarako erabiltzeaz gain, hainbat artistarendako lantoki ere bilakatu da. Euren lanerako txokoa topatu dute bertan.

AURRERA EGIN BEHARRA

Elkarte gaztea da oraindik, eta erabat egituratu barik dago. Sortu zenean bazarra osatu zuten, eta herriko 50 bat artista elkartu ziren. "Lehendakaria, diruzaina, idazkaria eta bestelako postu batzuk izendatu genituen, eta denok etxera", gogoratu du Riki Azkargortak. Rikik azaldu digunez, karguak izendatu, izendatu zituzten, baina horretan geratu zen kontua. "Artistak nahiko indibidualistak gara, geure kasara ibiltzea gustatzen zaigu", gaineratu du. Baina

orain, jende berria ere sartu denez, gauzak aldatu beharra dagoela ikusi, eta horretan dihardute. Alde batetik, bazkide sistema ezarri nahi dute, autofinantzazio ahalik eta handiena lortzeko.

AUTOGESTIO EGOKIAREN BIDETIK

Bestalde, lokala kudeatzeko bide berri baten beharra ere ikusten dute. Bazkideen bidez autofinantzatu, eta langile batek lokala kudeatzea ikusten dute aukerarik egokiena. Gauza asko ego-



Bergarako Udalak eman zien Boluko egoitza; 1999an inauguratu zuten.

GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera
komisioa:
%0,25
35 urte
bitarteraino

iRUDI

Erloju denda
Bitxitegia

Ibargarai, 2
943 76 51 65



Helduendako ikastaroa martitzenero izaten da; zapatu goizetan txikiaren txanda izaten da.

ten da egiteko: diru kontuak, ikastaro eta erakusketak antolatu eta informazioa zabaldu... Hori guztia egiteak lan handia ematen du, eta pertsona bat horretarako kontratatzea da aukerarik aproposena, arduradunen ustez. Gainera, lokala, pintoreek lan egiteko eta ikastaroak eskaintzeko erabiltzea da euren asmoa, eta erakusketarako herriko beste areto batzuetara jozea. Izan ere, Boluko egoitza lantoki bat da eurentzat. Riki Azkargortaren esanetan, Bergaran, "fundamentuzko

Pintoreek lan egiteko eta ikastaroetarako erabiltzen da, batik bat, lokala

erakustoki bat falta da". Egin izan dituzte erakusketak Bearten, eta aurrerantz ere egingo dituzte, baina ez da tokirik egokiena. Horregatik, beste erakustoki batzuk erabiltzea da euren helburua. Kultura Etxekoa ondo dago, baina kasu batzuetarako oso txikia ei da.

ESKOLA ERE BADA

Martitzenetan helduen txanda izaten da. Zapatu goizetan, berriz, umeena. Riki Azkargorta dute irakasle lehenengoek. Umeen ikastaroaz, ostera, Oihana eta

Maira arduratzen dira. Rikik esan digunez, 16 urtetik gorako 18 bat lagunek dihardute pintura klasean. Pintura klasikoa lantzen dute. Zapatu goizetan, berriz, umeendako pintura eskola bilakatzen da Bearteko egoitza. Hogeita bost ume joaten dira, eta denetik ikasten dute: marrazkiak, eskulanak... ondo pasatuz, irudimena landuz, pintura eta bestelako teknika artistikoak ikaste-ko aukera paregabea izaten dute.

Aurrera begira, bestelako ikastaroak eskaintzeko asmoa ere badute: teknika jakinei buruzkoak, teknika berrien ingurukoak... Ikastaroak, gainera, diru iturri garrantzitsuak dira elkartearantz; izan ere, oraingoz ez dute besterik.<

ile apaindegia

eder gela

— disdira —

Masterreka, 7 • Tf. 943 76 00 55



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Bergara-Pasajes futbol partidu erabakigarria zapatuan Ipintzan

Igoera fasean Pasaian bertan bakarrik galdu zuten

Bergara KEko bigarren erregionaleko futbol taldeak Pasajes taldearen aurka jokatu du zapatuan, Ipintzako futbol zelaietan, 16:30ean. Zapatuan Donostiako Axular taldeari 3-0 irabazi ondoren, mahoneroak, partidu bat gutxiago jokatu ere, sailkapeneko lehen postuan dira.

Zapatuan Bergarak 3-0eko emaitzarekin irabazi zion Axular donostiar taldeari, Ipintzan. Mahoneroek partidu ona egin zuten eta lehen erregionalerara igotzeko beste urrats bat eman zuten. Bittor Gallastegik (2 gol) eta Markos Alonsok sartu zituzten etxeko golak. Azken jardunaldiaren ostean, Karlos Lasaren taldea sailkapeneko lehen postuan dago, 15 punturekin eta partidu bat gutxiagorekin, Grosekoren aurka Donostian jokatu beharreko partidua bertan behera geratu zelako. Bergararen



Bigarren erregionaleko futbol taldeak aukera handiak ditu lehen erregionalerara igoera lortzeko.

atzetik Antzuola (15 puntu), Pasajes (12), Idiazabal (10) eta Axular (10 puntu) daude. Bergarak igoera fasean bost partidu irabazi eta bakarrik galdu du, Pasajesen hain zuten, lehenbiziko jardunaldian (1-0).

GOL-AVERAGEA

Gauzak horrela, biharko partidua oso garrantzitsua da. Bergarak Pasajes eta Antzuola taldeak hartuko ditu etxean bigarren itzuleran, eta bi partidu horiek aurrera ateraz gero, aukera handiak

izango ditu mailaz igotzeko. Ligan lehen bi postuetan amaitzen dutenak lehen erregionalerara igoko dira eta gol-averageak zeresana izan dezake. Beraz, Pasajesi bi goleko abantailaz irabaztea komeniko litzateke.

Saskibaloi izarrak Bergaran entrenatu ziren

Cafes Aitona saskibaloi taldeak entrenamendua egin zuen astelehen goizean Labegarietan. Herriko ikastetxeetako ikasleek gain, ikusle ugari bildu zen kiroldegian. Berotze ariketak egin ondoren, jokalariek euren arteko partidu bat jokatu zuten, Eduardo Clavero entrenatzailearen aginduetara. Hala ere, Branch eta Anderson ipar amerikarrek ez zuten entrenamenduan parte hartzerik izan. Askatuak ez dabil batere ondo ligan. Zapatuan, Guadalajara taldearen aurka galdu ondoren (70-72), donostiarrak LEB-2 ligako sailkapeneko azken tokian dira eta jaitsierako play-offa jokatu beharko dute.



IÑIGO OLAÑETA / CDR taldeko txirrindularia

«Aurten, afizionatueta, sufritzea tokatuko zait karrera gehienetan»

Iñigo Olañeta bergarar txirrindulariak (18 urte) lehenbiziko urtea egingo du aurten afizionatueta, CDR taldean. Denboraldia hasi baino lehen talderik gabe korritzeko prest zegoen, baina azken orduan CDR taldearen eskaintza jaso zuen. Domekan Gorlako igoeran hartuko du parte.

G. Lokatzen ibili ondoren, otsailan ekiporik gabe zeunden afizionatueta korritzeko...

E. Horrela da. Bi urtez izan naiz Lokatzen, gazte mailan konpetitzen, eta aurten jarraitzeko gogo neukan, nahiz eta talderik ez izan. Ekiporik gabe bazen ere, animatuta nengoen. Garraioa eta materiala nire kontura izango lirake, baina baneukan Iñigo Igartuaren laguntza. Dena dela, denboraldia aurrera joan ahala CDRkoek beraiekin fixatzeko aukera izango nuela esan zidaten, eta justu denboraldia hasi baino lehen eskaintza egin zidaten. Pozik nago.

G. Zenbat lasterketatan hartu duzu parte dagoeneko?

E. Oraingo, Atarrabiakoan bakarrik, martxoaren 4an, eta ezin izan nuen bukatu. Tropela moztu zen, gero beste taldetxo batean sartzea lortu nuen, baina azkenerako indar barik nengoen. Erritmo aldaketa handia dago gazte mailatik afizionatueta eta aurten sufritzea tokatuko zait. Dena dela, oraindik ez nago nire sasoirik onenean. Uda aldera hobeto egotea espero dut, pixkanaka kategoriarara egokitzeko, oso gogorra baita.

G. Zelako prestaketa daramazu?

E. Jose Angel Larrañaga beasaindarra da nire prestaketailea. Berak markatzen dizkit entrenamenduak eta die-

ta. Batzuetan errodilloa tarte-katu arren, entrenamendu gehiena errepidean egiten dut. Oraingo 3.000 kilometro egin ditut.

G. Zer da gogorragoa, entrenamenduak ala dieta jarraitzea?

E. Entrenamenduak, batzuetan sei bat orduz entrenatzen dudalako. Astelehenetan eta egubakoitzetan izan ezik, egunero entrenatzen dut. Dietari dagokionez, okela astean bi aldiz bakarrik jaten dut, eta batez ere arraina, pasta, entsaladak eta barazkiak jatea gomendatzen dit prestaketaileak.

G. Zein asmo Gorlako igoerarako?

E. Igoera ondo ezagutzen dut, baina gogorra egingo zaigu guztioi. Ahal dudan ondoen bukatzea gustatuko litzaidake.



karteldegia

FUTBOLA
Bergara-Zumaiako
 Zapatua. 12:00. Ipintza
Bergara-Pasajes
 2. erregionala
 Zapatua. 16:30. Ipintza
Bergara-Antzuola
 Neskak
 Zapatua. 18:15. Ipintza
Bergara-Mariño
 Ohorezko mailako gazteak
 Domeka. 11:00. Ipintza

ESKUBALDIA
Bergara-Arrasate
 Gazte mutilak
 Zapatua. 17:45. Kiroldegia
Bergara-Lasalle
 Kadete mutilak
 Zapatua. 19:00. Kiroldegia
Bergara-Donibane
 Senior mutilak
 Domeka. 12:15. Kiroldegia

SASKIBALDIA
Bergara-Alde Zaharra
 Senior mutilak
 Zapatua. 16:00. Kiroldegia

PILOTA
Bergara-Ataun
 Udaberriko txapelketa
 Bigarren mailako afizionatuak.
 Final laurdenak
 Gaur, egubakoitza,
 Udal Pilotalekuan, 19:30ean
Bergara-Eskoriatza
 Deba Arroko Txapelketa
 Martxoaren 20an, martitzena,
 Udal Pilotalekuan, 19:00etan

EDEL TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

ezpeleta

Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
 Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Irala 3
 Telefonoa: 943 76 48 26

IRRINTZI
 kafetegia

ANDVZV

ANDUZU S.L.
 Simon Arrieta, 1, 4-C
 607 349 043

Garabi zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Irubide-Pagomendi	3-3
Fac-Bar Ugarte	0-4
Buya-Bar Canalejas	3-6
Amoskibar-Errotagain	2-7
Apa Oxemai-Bildurbarek	4-7

B MULTZOA

Aterpe-Etengabe	3-0
Bayer-Agirrebeña jatebtxea	16-2
Amilotx-Ortzi	1-6
Alum.Kresala-Cine Bank Irimo	6-1
Kanpazar Harrob-Vagalouras	8-1

C MULTZOA

A Ze Flaxa-Txipiron	5-0
Guadalest-Mongatxurak	1-2

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

11:30: Agirrebeña jatebtxea-Amilotx	Fac
12:30: Torrekua-Fac	Agirrebeña

ZAPATUAN, KANPOAN

16:00: Artusamak-Guadalest	Etengabe
17:00: Ortzi-Etengabe	Mongatxur.
18:00: A Ze Flaxa-Mongatxurak	Pagomendi
19:00: Pagomendi-Bar Ugarte	A Ze Flaxa

DOMEKAN, BARRUAN

9:30: Bildurbarek-Irubide	Errotagain
10:30: Errotagain-Buya	Irubide

DOMEKAN, KANPOAN

11:30: Canalejas-Apa Oxemai	Buya
12:30: Pinturas Bergara-Bayer	Apa Oxemai

ARGI!

Neska bat Bar Canalejas taldean

Agurtze Intza futbito txapelketan jokatzeko ari den neska bakarra dugu. Bar Canalejas taldean jokatzeko dihardu eta benetan txalotzekoa da bere aurasardia. Ea datorren urteko ekitaldian neska gehiago animatzen diren jokatzera. Zergatik ez emakumeen talde bat?

Liga amaitzeaz

Liga amaitzeaz dago eta goialdeko postuetan dauden taldeek onena eman beharko dute azken partiduetan, onenen play-offerako sailkatu ahal izateko.

mahoneroak



CASIMIRO HOYOS
BKEko bazkidea

Beharbada banako emaitza justuagoa izango litzateke zelaian ikusitakoaren ondoren, baina Hernanik izan duen gol aukera bakarra aprobetxatu du eta Bergarak, aldiz, ez du ate aurrean asmatu. Dena den, etxeko jokalariek erdi lokartuta atera dira eta ez dute behar besteko grinarik izan partidua aurrera ateratzeko.

Hernaniarrak zelaian hobeto kokatuta izan dira eta gauza gutxi egin badute ere, hiru puntuak eskuratu dituzte. Bigarren zatian denbora galtzen ibili dira lehen zatian lortutako abantailari eusteko, eta etxekoek baino askoz lasaia jokatu dute. Nire ustetan, Bergarako jokalariek tentsio puntu bat falta izan zaie.

Taldeak liga hasiera ona egin bazuen ere, azken jardunaldietan ez dabil batere ondo, eta kezkatzeko moduko egoeran dago, jaitsiera postuak gero eta hurbilago daudelako. Jarraian galtzen duen laugarren partidua izan da Hernaniren kontra, eta estuasunik ez igerotzeko, taldearen erreakzioa beharrezkoa da.

Bar Ugarte, Aterpe, A Ze Flaxa

Liderrek ez zuten hutsik egin eta aurrera atera zituzten, hurrenez hurren, Fac, Etengabe eta Txipiron taldeen aurka jokaturako partidak.



GORA eta BEHERA



Fac, Etengabe, Txipiron

Hiru taldeak ez ziren gauza izan gol bat ere sartzeko. Fac eta Txipiron sailkapenaren erdialdean dira, baina Etengabe B multzoko azkena da.

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	46	17
2. Errotagain	40	17
3. Bildurbarek	31	16
4. Bar Canalejas	31	17
5. Pagomendi	30	17
6. Amoskibar	27	17
7. Fac	23	16
8. Eri	16	17
9. Irubide jatebtxea	15	17
10. Buya	14	17
11. Torrekua	9	17
12. Apa Oxemai	4	17

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	41	15
2. Aluminios Kresala	32	15
3. Kanpazar Harrobia	31	15
4. Ortzi	30	14
5. Amilotx	23	15
6. Pinturas Bergara	20	14
7. Bayer	20	15
8. Vacalouras	13	16
9. Cine Bank Irimo	8	16
10. Agirrebeña jatebtxea	6	14
11. Etengabe	4	15
-	-	-

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	36	15
2. Mongatxurak	27	12
3. Guadalest	27	14
4. Artusamak	25	11
5. Txipiron	19	14
6. Komando Piperrek	19	13
7. Shaktale	13	12
8. Patxaran Team	4	13
-	-	-
-	-	-
-	-	-

Informazio hau, ondorengo babesleei esker:

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12



OGIZUN

koop. elk. okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Otsein Saria

Hernaniren aurkako partiduan honako hauek nabarmendu ditugu:

Ander Berraondo.....3 puntu
Oskar Maiztegi.....2 puntu
Igor Errasti.....1 puntu

Etxeko partidua bakarrik hartzen ditugu kontuan.

Berritze lanengatik deskontua

50%

UDABERRIKO arropetan

AGIRRE JANTZIDENDA

943 76 72 67. Bidekurutzeta 18



Txorimalo lehiaketa

Bergaran Erramu zapatuan,
apirilaren 7an.


Sari bikainak!

- Edonork parte hartu dezake.
- Gehienez 8 partaide taldeko.
- Hiru maila: 14 urtera artekoak, 15-60 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak
- Izena emateko azken eguna apirilaren 2a.

Anima zaitez!

Izen-ematea eta
argibideak:
Kartzela Zaharra
943 76 36 61 edo
943 76 08 19





MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

bonofotoa

Alde zaharreko zein kaletako atarian dago garai batean Verdury Hallean eredu bezala erabiltzen zuten Moisesen igeltsuzko irudi hau?

galde debalde

1. Zein diru kopuru bideratuko du aurten Udalak inbertsioetarako?


- A- 725 milioi pezeta
- B- 720 milioi pezeta
- C- 700 milioi pezeta

2. Non dago Beartek bere ekintzak aurrera eramateko erabiltzen duen lokala?

- A- Bolun
- B- Matxiategin
- C- San Martin plazan

3. Zein da Cafes Aitona saskibaloï taldeko entrenatzailea?

- A- Iñaki Clavijo
- B- Manel Comas
- C- Eduardo Clavero



Aurreko aleko saria **M. Luisa Zangituentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Maria Luisari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **Magnolia**
Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-A**

Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Colon
garbigarria, 18 ontzitxo

789 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Sen, Seletah Kolektiboa eta disc jockey-ak, Korrika Kulturalaren eskaintza

Gaur, egubakoitza, gaueko 22:00etan eskainiko dute kontzertua Jam aretoan

Korrika Kulturalak eskaintzen dizkigun ekitaldien artean, gaur, egubakoitza, Sen, Seletah Kolektiboa eta bi DJren musika entzuteko aukera izango dugu Jam aretoan. Bestalde, datorren martitzenean, hilak 20, areto berean, The Young Gods talde suitzarrak kontzertua emango du.



The Young Gods taldeak hilaren 20an eskainiko du kontzertua Jam aretoan.

Euskal Herriko bi talde izango ditugu, beraz, gaur gauean Jam aretoan. Seletah Kolektiboarekin hip-hop entzuteko aukera izango dugu, batetik, eta, bestetik, Sen taldearen rock gogorra.

Hip-hop euskaraz egiteko nahiak bultzatu zituen Daddy Jeff, Molte MC, Wanka eta D.Z Seletah Kolektiboa taldea sortzera. Hala ere, hip-hop bultzatu eta gauzatzea ez da taldeak

duen xede bakarra. Musika beltzaren ezagutza oso murrizta dela uste dute taldeko kideek, eta hori zabaltzen ere saiatzen dira. Munduko sentitzen direla diote, eta munduko kultura guztiak eta herri guztiak onartu eta errespetatzen dituztela.

Euren musikak Espainia,

Frantzia eta Estatu Batueta-ko eragina du, batez ere. Hala ere, hitzetan, eguneko bizitzak eta inguruak sortzen dizkieten kezak azaltzen dituzte.

Seletah taldeaz gain, Euskal Herriko hainbat herri-ritako kideak biltzen dituen, Sen taldea hurbilduko

da gaur Jam aretora. Bestalde, Korrika Kulturalaren barruan Infernukuan aurrez ikusitako afaria atzeratu egin da hilaren 31ra; bazkaria izango da.

THE YOUNG GODS

Korrika Kulturaletik kanpo, datorren martitzenean, hilak 20, The Young Gods taldearen kontzertua egongo da Jam aretoan, 22:00etan.

1982. urtean Suitzan sortu zenetik, bere musika, mundua eta erritmoa jorratu ditu The Young Gods taldeak. Urte hauetan guztietan hainbat disko kaleratu ditu, sei hain zuzen ere; azkena, 'Second Nature', oraintsu kaleratu du, eta taldeak berak ekoiztu du. Samplingaren aintzindariak, 'Second Nature' diskoan emozio digitalaren biderei jarraitu diote, era oso garbian.

Santa Marina eliza argiztatu egingo du udalak

Santa Marina parrokia eta haren inguruak argiztatzeko proiektuaren idazketa eta baldintzen plegua onartu zituen udalbatzak eguazteneko osoko bilkuran.

Artistikoa deritzon argiztatzea izango da aipatu-

takoa, hau da, gauez eraikinen edertasuna areagotzeko erabiltzen duten argiteria mota. Argi horiek elizan bertan jartzeaz gain, eliza inguruan ere jarriko dituzte, Oxirondo plazan (Santa Marina ostean).

Proiektua oraindik idatzi gabe dagoenez, zenbat argi, zehazki non jarriko dituzten eta lanak noiz egingo dituzten jakiterik ez dago. Gainera, argiztatze lan horiek Oxirondo plaza urbanizatu ostean egingo dituzte, eta

urbanizazio lanetarako data zehatzik ere ez dago.

Bestalde, Santa Marina parrokia argiztatu ostean, udaletxe inguruan dauden hainbat eraikin argiztatze-ko ideia aztertzen dihardu udalak.

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08

Ganbara
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75



La Parra tabernan, 1950

Oraindik ere askok gogoan izango dute San Antonioko La Parra taberna, ermitaren ondoan zegoena. Eraikina orain dela urte gutxira arte zutik egon da, baina, San Antonio auzoan azkenaldian egindako aldaketa urbanistikoengatik, bertan behera bota zuten orain dela pare bat urte-edo. 1990ko hamarkadaren hasierara arte zabalik izan zen La Parra taberna. Oraingo asteko erretratu zaharra 1940ko hamarkadaren amaierakoa da eta bertan, ezkerretik eskumara, Maria Luisa Txintxurreta, Luis Larrañaga "Kikio" eta Milagros Agirre ageri dira. Baliteke argazkia San Antonioko jaietan, ekainean, ateratakoa izatea.

Argazkia: Maria Luisa Txintxurreta

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu.

Irizar jauregian gaituzu, zatoz!



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

OHARRA BEZEROEI:

*Ramon Maria Liliko
bulegoan arazo teknikoak
ditugunez, aldi baterako
bulegoa BELANBIDE KALEAN
izango dugu. Ongi etorri, denok.*



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



IRAEGI
ASEGURUAK

AGENTEA

Telefonoak: 943 76 23 30

eta 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneratik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00

ORAIN Belanbide	Ramon Maria Lili
Ibargarai	Errotonda

Zuri Beltz margoak



Barnealde eta kanpoaldean erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bolumena txikitzeko eta argaltzeko tratamenduak



 Phytomer


Presoterapia eta algak

PRESIO HANDIKO SOLARIUMA DUTXAREKIN

Ametz

EDERTZE ARETOA

■ Masterreka 19, behea. 943 76 46 53. ■



AGIRRE
HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea


ZABALDU BERRIA
Ibargarai, 9. 1-B
943 76 00 23
09:00-13:00 eta 16:30-20:30

JAKINA


FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

Zure etxeko bainugela
berritu eta altzariak
jarri aurretik, zatoz Jakinara.
Diseinua, kalitate/prezio
erlazio bikaina eta **saldu**
osteko zerbitzu ezin hobea
eskaintzen dizugu.

Jakina,
zurekin
pentsatzen



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR 

Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.